



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko irailaren 14a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, emakume haurdunari laguntzeko sare bat eratzen eta arautzen duena. Proposamenaren testua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa. Ezquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira amatasuna, abortua, sexu-hezkuntza eta abar direla-eta zenbait ekintza egin ditzan. Ezquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure Foru Komunitatean haurdunaldiaren borondatezko etenduraren zerbitzua izateko behar diren baliabide egokiak jar ditzan 2007ko abenduaren 31 baino lehen, betiere arestian aipaturiko legean ezarritako kasuetan emakume horiek beren eskubidea baliatu ahal izateko eta behar duten laguntza Nafarroako osasun zerbitzu publikoan jaso ahal izateko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren eta Estatuaren arteko Lankidetzaren Batzarrerako dei egin dezan, Konstituzio Auzitegian aurkeztutako konstituziokontraotasuneko errekurtsioa erretira dadin; errekurtsioa, izan ere, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko 39/2006 Legearen zenbait xedapenen aurkakoa da. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hileko epean Parlamentuan aurkez dezan zentroetako eta, oro har, zerbitzuetako laguntzako langileen ratioei buruzko diagnosi bat. Ezquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2007ko abendua baino lehen behar den konponbidea jar dezan Tuterako Erruki Etxeko eguneko zentroa irekita egon dadin eta haren funtzionamendu

araubidea normalizatu dadin, eguneko zentroa garai horretan ixten baita. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (13. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du erabat gaitzesten duela ETA talde terroristak Logroñon egiten saiatu den atentatu hutsegindakoa. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak lehendakaria buru duen entitate batek irabazi asmoko entitate pribatu baten, Klinika Unibertsitarioaren, propaganda egiten duen, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (15. or.).

—Galdera, Foru Ogasunak Larraina Klubari eginiko ordainketei eta haien kontzeptuari, klub horren estatu-tuei eta generoko bazterkeriari buruzkoa, foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak egina (16. or.).

—Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2003an, 2004an, 2005ean eta 2006an gure erkidegoaz kanpora bideratu dituen haurdunaldiaren borondatezko etendura kasuen zenbatekoari buruzkoa, foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak egina (16. or.).

—Galdera, Ablitasko herritar batzuek aurkezturiko kexa dela-eta Arartekoak uztailearen 11n eman zuen 103/2007 Ebazpenaren ondorioz Landa Garapeneko Departamentuak aurrera eraman behar dituen ekintzei buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).

—Galdera, Tuteran adinekoentzako egoitza bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (18. or.).

—Galdera, abiadura handiko trenaren ibilbideari buruzko azterlan bat egiteko aukerari buruzkoa, Tuteratik iragan dadin, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (18. or.).

—Galdera, Defentsa Ministerioak Ezkabako Gotorlekua laga dezan egin diren urratsei buruzkoa, foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (19. or.).

—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak 2003. urtetik gaur egun arte irakurzaletasuna sustatzeko erabili duen aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkura jaunak egina (20. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Mahaiko erabakia, Batzordeetako kideen kopurua ezartzen duena (21. or.).

—Foru parlamentari José María Vázquez Royo jauna Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldean sartzea (21. or.).

—Foru parlamentari berriak Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea (22. or.).

—Lehendakaritzaren ebazpena, Ana Concepción Puyo andrea Lehendakaritzako kabineteburu izendatzen duena (22. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, emakume haurdunari laguntzeko sare bat eratzten eta arautzen duena.

PROPOSAMENAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek bestek:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen herriaren legegintza-ekimenaz baliatuz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, herriaren legegintza-ekimena sustatu duen batzordeak, José Manuel Contreras Naranjo buru duenak, emakume haurdunari laguntzeko sare bat eratzten eta arautzen duen foru lege proposamena aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuan, eta Mahaiak tramitera onartu zuen 2006ko azaroaren 13an harturiko erabakiaren bidez.

Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzialeko idazkariak, herriaren legegintza-ekimena arautzen duen 3/1985 Foru Legearen 12.2 artikuluan xedatutakoa betez, ziurtagiri bat luzatu du, egiaztatzeko ezen "emakume haurdunari laguntzeko sare bat eratzten eta arautzen duen herriaren legegintza-ekimena sustatu dutenek Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzial honetan aurkeztu duten dokumentazioa ikusirik, proposamena izenpetu dutenen sinadura baliozkoen kopurua zazpi mila zortziehun eta hamaika dela (7.811).

Hori horrela, 3/1985 Foru Legearen 13. artikuluan eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan xedatutakoarekin bat, Eledunen Batzarri entzun ondoren, ERABAKI DA:

1. Emakume haurdunari laguntzeko sare bat eratzten eta arautzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Herritarren Legegintzarako Ekimenaren bidezko Lege Proposamena, emakume haurdunari laguntzeko sare bat eratzten eta arautzen duena

ZIOEN AZALPENA

Gizarte garatu batean, inongo emakumerik ez litzateke gizartearen babesik gabe gelditu beharko soilik haurdun egoteagatik, eta ez luke bere burua ikusi beharko babes hori falta izateagatik abortatzeko erabakia hartzeko premiatu. Hala eta guztiz ere, gure gizartean oso maiz gertatzen da ustekabeko haurdunaldi batean emakumea bakarrik eta abandonaturik sentitzea, haurdunaldi horrek agian planteatzen ahal dizkion arazoak direla eta, bereziki familia-harreman egonkor batean integrazterik ez duenean, adingabea denean, lanean ezegonkortasuna duenean edo diru baliabideak falta dituztenean. Arazo horiek larriagotu egin daitezke aitzak abandonatzen duenean edo ardurarik hartzen ez duenean, lanpostua galtzeko berariazko nahiz usteko mehatxua dagoenean edo gizarteratzearen arloko bestelako arazo berezi batzuk gertatzen direnean; esate baterako, Espainian behin-behineko egoeran dauden etorkinen inguruabar bereziak tartean direnean.

Halakoetan, irudi lezake abortua dela ukitutako emakumeak duen egoeraren irtenbide bakarra; gainera, tamalez, maiz gertatzen da emakume haurdunaren inguruko ahots askok –adiskideak eta senideak, bai eta gizarte laguntzaileak eta sendagileak ere– abortua aurkeztea bere arazo eta beldurretarako konponbide logikoa balitz bezala. Hartara, ikusten dugu Espainian kontrolik gabe hazi dela urtero abortuen ondorioz gertaturiko heriotzen kopurua.

1985ean abortuari buruzko egungo legeak indarra hartu zuenetik, Espainian milioi bat abortu egin dira. Dauzkagun azken datu ofizialak 2004koak dira; urte hartan, 85.000 abortu inguru

izan ziren Espainian; hau da, abortu bat 6,2 minutuko. Horrek esan nahi du azken hamar urteetan % 75 baino gehiago egin duela gora abortuen kopuruak, eta abortua dela Espainiako hilkortasunaren arrazoi nagusia. Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, urte hartan 639 abortu izan ziren, eta horrek esan nahi du azken hamar urteetan % 300 baino gehiagoko iguera gertatu dela; hau da, urtero gure erkidegoan emakume kopuru nabarmen bat abortatzeko beharrean aurkitzen dela gure gizartea ez delako gauza izan aukera errealik eta trauma gabekorik eskaintzeko.

Ustekabeko haurdunaldi batek sortzen ahal dizkion arazo errealean aurrean emakumea bakarrik eta abandonaturik uzten duen gizarte bat ez da gizarte zuzena, demokrazia aurreratu baten berezko eskakizunei erantzuten diena, gure Konstituzioak exijitzen duen estatu sozial baten barrenean. Abortu oro tragedia izugarri bat da, jaiotzera iristen ez den haurrentzat eta, halaber, askotan benetan askea ez den emakumearentzat; izan ere, inork ez dio aukera seriorik eskaintzen aborturik ez egiteko, eta urte luzetan bere bizkar eraman behar izaten ditu emakumeek askotan pairatzen duten abortuaren ondoko sindromearen ondorioak.

Ez dago emakumerik alaitasunez abortatzen duenik; abortu oro tragedia bat da. Hori dela eta, gizartea eta botere publikoak aktiboki inplikatu behar dira Nafarroako Foru Komunitateko emakume bakar bat ere ez dadin egon halako bakartasuneko, laguntza faltako eta elkartasunezko laguntzaren gabeziako egoera batean, non abortua izanen den aurkezten dioten irtenbide bakarra. Gure gizartearen ezinbesteko premia da emakume haurdunari laguntzeko elkartasunezko sare bat sortzea, aukera positiboak aurki ditzan abortuaren drama saihesteko. Hauxe da herritarren legegintzarako ekimen honen xedea: behar diren arau-aurreikuspenak egitea Nafarroako Foru Erkidegoaren lurralde eremuan emakume haurdunari laguntzeko elkartasunezko sare bat egon dadin, dauzkaten arazoetarako aukerako konponbideak eskaintzeko, betiere haurdunaldiaren jarraipenarekin bateragarriak direnak.

Gatazka edo babes gabeziako egoeran dauden emakume haurdunek batez ere laguntzako, aholkularitzako eta orientazioko eskaintza osoak behar izaten dituzte, zama emozionalak eta bazterkeriak gainditzeko laguntzeko eta seme-alabaren bizitzaren aldeko hautua benetako askatasunean egin ahal izateko.

Gure herrialdean, GKE pribatu batzuk badaude azken urteetan haurdunari laguntza emateko lanean jardun dutenak; gainera, beren lanetan arrakas-

ta-maila handia izan dute: GKE horiek emaniko informazioaren arabera, haurdunaldian laguntza eman zaien lau emakumetatik hiruk ez dute abortatu. Esperientzia positibo bera islatzen du Madrilgo Autonomia Erkidegoan azken urteetan abian jarri den esperientzia interesgarriak, bereziki emakume gazteei zuzenduta dagoenak.

Emakume haurdunari laguntza emateko politika publiko batek laguntza emanen dio emakume horri amatasunaren aldeko hautua askatasunez egiteko; horrek justizia sozialean gorago iristea esan nahi du, eta lagungarri gertatuko da gure gizartea sentsibilizatzeko haurdunaldiaren eta amatasunaren garrantziaz eta haien balio pertsonal eta sozialaz.

Nafarroako autonomia erkidegoak, Konstituzio-ko 148.1.20 artikuluan aurreikusitakoaz baliatu baita, gizarte-laguntzaren arloko eskumen osoak eskuratu ditu. Horri dagokionez, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44. artikulua Nafarroak gizarte laguntzaren arloko eskumen osoa duela ezartzen du. Estatutuak ezarritakoaren babesean, ondoko legea onesten da.

1. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean helbidea edo egoitza duen emakume haurdun orok eskubidea izanen du haurdunaldiak ekar dezakeen edozein gatazka gainditzeko moduari buruzko aholkua izateko, eta modu pertsonalizatuan informazioa jasotzeko haurdunaldia bururaino eramateko lor ditzakeen laguntza eta babesen gainean, betiere dauzkan inguruabar partikularren arabera.

2. artikulua. Emakume haurdunari aurreko artikuluan aipatzen den aholkua eta informazioa emateko, autonomia erkidegoko gobernuak sustatu eta babestuko du emakume haurdunari laguntzeko laguntza- eta aholku-zentroak egon daitezkeen, haietara joaten diren emakumeei informazio zehatza emateko estatu mailan, autonomia erkidegoan eta tokian toki dauden gizarte-babeseko balibideei buruz, publikoak nahiz pribatuak izan, betiere emakume horiek dauzkaten beharrezanetarako egokiak; bereziki, informazioa emanen diete gizar-teratzerako ordainsariei buruz, amatasunerako laguntzei buruz, egoitza arloko laguntzei buruz eta berriz laneratzeko laguntzei buruz.

Zentro horietan, behar den informazioa emateaz gainera, orientabideak emanen zaizkio emakumeari laguntza horiek lortzeko, eta haiek izapidetzen eta kudeatzen lagunduko zaio.

3. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko laguntza-politika guztietan, lehentasuna emanen zaie emakume haurdunari kasuan kasuko prestazio

edo laguntzak jasotzeko, betiere haien egoerarako egokiak badira.

4. artikulua. Laguntza berezia emanen zaie haurdun dauden nerabeei. 30 urtetik beherako emakume haurdun orok eskubidea izanen du berariazko laguntza bat jasotzeko; hartan, gutxienez ere, honako prestazioak jasoko dira: amatasunari buruzko hezkuntza, erditzearen aurreko eta ondoko laguntza psikologikoa eta laguntza berezia ikasten ari den ikastetxean, ikasketa plana haurdunaldiaren eta amatasunaren arabera egokitzeko.

Haurdun dagoen nerabeak eskubidea izanen du eskolako ordutegiak eta planak bere beharren arabera egokituak izateko, haurdunaldian zehar eta erditzearen ondorengo hurrengo bi urteetan. Hezkuntzaren arloko arduradunek zainduko dute aurreikuspen hori guztiz betetzen dela, eta behar diren bitartekoak eta neurriak jarriko dituzte haurdunaren etekin akademikoa ahal den onena izan dadin, haurdunaldiaren eta amatasunaren ondoriozko betekizunekin bateragarria izan dadin.

5. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko gobernuak dirulaguntzak eman eta itunak egin ahalgo ditu emakume haurdunentzat lege honetan aurreikusitako aholkuak eta laguntza eskaini nahi dituzten gizarte ekimeneko zentroekin.

Emakume haurdunari haurdunaldia bururaino eramateko laguntza ematen dioten entitate pribatuek autonomia erkidegoko administrazioaren lankidetzeta eta laguntza teknikoa edukiko dute.

6. artikulua. Lege honetan araututa dauden informazio- eta aholku-zentroetan zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztiek isilpean gorde behar dituzte beren jarduna betetzeko dauzkaten informazio pertsonalak.

7. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko laguntza- eta osasun-zentro guztietan nahitaezkoa izanen da emakume haurdunari informazioa ematea lege honetan araututako laguntza-sareari eta harekin harremanetan jartzeko moduari buruz.

Zentro horietan haurdunari abortuari buruz ematen zaion informazioan, arloari buruz indarra duten legeei buruzko informazioaz eta osasun arauak eskatzen duen informazioan oinarrituriko baimena emateari buruzkoaz gainera, informazio zehatz eta objektiboa emanen da ondorio fisiko eta psikikoei buruz, horren barne dela abortuaren ondoko sindromeari buruzkoa.

8. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko gobernuak sei hileko epean haurdunari laguntzeko

plan integral bat egingen du; bertan, laguntza-sare eraginkor baten existentzia errealitate egiteko ekin-tzak eta helburuak jasoko dira, gutxienez ere ondoko aurreikuspen eta informazioekin:

1. Haurdunak haurraren bizitzaren aldeko haurtua askatasunez egiteko behar duen laguntza lortzeko erabil ditzakeen zentro, prestazio eta laguntzen identifikazioa.

2. Publizitate kanpainen aurreikuspena, balizko interesdunari eskura dituen bitartekoen berri emateko.

3. Gizonezkoei, bereziki nerabeei, zuzendutako kanpainak, haurdunaldiaren eragile gisa duten ardura beren gain har dezaten, haiei jakinaraziz zeinen zuzengabea den bikotekidea bakarrik uztea haurdun dagoela. Gizonezkoek ez dute abortuaren ondoko sindromea pairatzen, baina haiekin sexu harremanak izan dituzten emakumeek hura izatearen arduradunak izan daitezke, haurdunaldian elkartasunez jokatzeko ez badute.

4. Abian jarriko diren neurriak, haurdunak edo ama berriak enplegua eskura dezan errazteko, gizarte soldatak edo antzeko kontzeptuak eskura ditzan, sarbidea izan dezan bere egoeraren araberrako egoitza edo etxebizitzetan eta haurraren lehenbiziko urteetan haurtzaindegi-zerbitzuez baliatu dadin.

5. Autonomia erkidegoan gizarte-ekimenaren arloan eta xede horiek lortzeko lan egiten duten GKE eta elkarten zerranda.

6. Haurdun orok babes eta laguntza sare hori badagoela jakin dezan abian jarriko diren bitartekoak.

9. artikulua. Nafarroako Gobernuak erraztasunak emanen ditu doako telefono bat egon dadin, haurdunek lege honetan araututako laguntza-sarearekin harremanetan jarri ahal izateko.

Halaber, Nafarroako Gobernuak web orri bat sortuko du, non eskura egonen baita lege honek sare hura abiatzeko planek, arauak eta ekimenek aipatzen duten informazioa; giro egokietan hura ezagut dadila eta erabil dadila bultzatuko da.

10. artikulua. Nafarroako Gobernuak sustatuko du autonomia erkidegoko udalak inplika daitezkeen balizko interesdunen artean zabaltea haurdunari laguntza emateko sare bat badagoela, lege honetan ezarria, eta aktiboki lan egingen du sarearen zabalpena, aplikazioa eta eraginkortasuna bultzatzeko. Horretarako administrazioen artean bidezkoak diren lankidetzeta itunak ezarri ahalgo ditu.

Foru Lege proposamena, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioak 27.4 artikuluan ezarri du "oinarrizko irakaskuntza derrigorrezko eta dohain" dela. Ondoren hezkuntzari buruz eman diren lege organikoek konstituzioaren agindu hori jaso eta garatu dute.

Konstituzioaren agindutik argi ateratzen da derrigorrezko irakaskuntzek ez dutela ikasleentzako inongo kostu ekonomikorik ekarri behar, ez eta ikasleen guraso edo tutoreentzat ere.

Derrigorrezko irakaskuntza emateko behar den gastua hainbat ataletan banatzen da: azpiegiturak, irakaskuntzakoak eta irakaskuntzaz kanpokoak; irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak; azpiegitura guztien mantentze-gastuak; jantoki-gastuak eta eskola-garraiokoak, funtzionamendu-administrazio-gastuak eta testu liburua.

Nafarroako egungo finantzaketa publikoak esandako gastuak eta inbertsioak estaltzen ditu, salbu eta testu liburuari dagozkienak. Halere, testu liburuak ezinbesteko materiala dira derrigorrezko irakaskuntza kalitatearekin emateko, eta haiek, berriz, familiek erosi behar izaten dituzte, orokorrean.

Testu liburuak doakoak izan daitezke lortzeko prozedura bat baino gehiago dago. Errenta maila txikiko familietako ikasleentzako beka bezalako prozedurak ez dira ikasle guztiengana iristen.

Beste prozedura batzuek bai balio dute guztientzat finantzaketa publikoa emateko: administrazioak zentzuzko testuak ematea edo administrazioak testuak erosi eta zuzenean ikasleei ematea, esate baterako.

Eta azken horiek –finantzaketa publikoak testu liburuen kostuaren ehuneko ehun hartzea eta ikasle guztientzat izatea– dira gure Konstituzioak 27.4 artikuluan jasotako aginduaren betetzea bermatzen dutenak.

Eta horixe da, hain zuzen ere, legegintza ekimen honen xedea. Eduki sozial zalantzagabea eta handia duen konstituzio-agindu hori betetzea. Hori dela eta, arautzen da Nafarroako Gobernuak derrigorrezko irakaskuntzako ikasleei matrikulatuta dauden ikasgaietarako behar dituzten testu liburuak guztiz finantzatzea.

Lehen artikulua. Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua.

Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburutzat hartuko da argitalpen unitario oro, liburuak, faszikulu edo emanaldi batean zein batzuetan editatu den, ikusizko, ikus-entzunezko edo entzunezko material osagarriekin zein gabe argitaratua, baldin eta izaera didaktikoa badu, eta derrigorrezko hezkuntzetako ikasketa-planetan aurreikusi diren gaiak jorratzen baditu eta legezkoa den aurreko onespina edo homologazioa badu; betiere, ikastetxeak material didaktiko gisa hautatua behar du izan, kasuan-kasuan aplikatu daitezkeen indarreko arauarekin bat.

Bigarren artikulua. Doakotasuna.

1. Diru publikoekin ordaindutako ikastetxeetako testu liburuak, alegia, ikastetxe bakoitzak oinarrizko hezkuntzan irakasteko legez aukeratu dituen haiek, dohainik izanen dira aipatu irakaskuntzan ari diren ikasle guztientzat.

2. Erregelamenduz zehaztuko dira aipatu ikastetxeek eta gurasoek edo tutoreek foru lege honen xedea diren testu liburuak jasotzeko jarraitu beharreko prozedurak.

Hirugarren artikulua. Finantzaketa.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak bilduko ditu aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, foru lege honetako bigarren artikuluan jasotako testu liburuen doakotasuna finantzatzeko behar diren kontusailak.

Xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak, indarra hartu eta, gehienez, hiru hilabeteko epean, foru lege hau erregelamendu bidez garatuko du, Hezkuntza Departamentuak proposatuta eta Nafarroako Eskola Kontseiluak bere txostena eman ondoren.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetu egiten da foru lege honek xedatuari kontra egiten dion maila bereko ala apalagoko arau oro.

Azken xedapena. Foru lege honek 2008ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira amatasuna, abortua, sexu-hezkuntza eta abar direla-eta zenbait ekintza egin ditzan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu du: "Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira amatasuna, abortua, sexu-hezkuntza eta abar direla-eta zenbait ekintza egin ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena:

Haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Estatuko arau indardunen arabera, abortua oraindik ere Zigor Kodean araututako delitua da, eta abortua egiten dutenentzako zigorrak ezartzen dira. Haurdunaldiaren borondatezko etendura lege ezarritako hiru kasuetan baino ez da onartzen. Ezin dugu, beraz, esan abortatzeagatiko zigorra Espainian desagertu denik, baizik eta legedia partzial bat dagoela, jarraibideen sistema eskas batean oinarrituta; sistema horrek,

gainera, emakumeen intimitatea eta amatasunari buruz modu arduratsuan erabakitzeke duten askatasuna urratzen ditu.

Berriki, Espainiako Gobernuko lehendakari Rodríguez Zapatero jaunak erabateko elkartasuna eta babesa eskaini zion emakumeak abortatzea libreak erabakitzea legeztatzearen alde Portugalen abiarazi eta indarrean den kanpainari. Bitartean, Espainian, haurdunaldiaren borondatezko etendura epe jakin batzuetan baizik ezin da praktikatu, eta baldintza jakin batzuetan, eta antolamendu juridiko demokratiko batean desegokia den zigor mehatxu baten pean. Hori dela eta, Estatuko legeak birformulatu beharrean gaude, halako moduan non aukera emanen diguten jarraibideen sistema batetik epeen sistema batera iragateko, hirugarrenek ez dezaten emakumearen gorputzari buruzko erabakirik har.

Osasun Ministerioak argitara emandako datuen arabera, 2005ean 639 emakume nafarrek haurdunaldia beren borondatez eten zuten 9/1985 Lege Organikoan ezarritako kasuen barrenean, baina Nafarroatik kanpo dauden osasun zentroetan egin behar izan zuten etetea; hartara, Nafarroa da Estatuko erkidego bakarra non emakumeak ezin diren eskubide horretaz baliatu beren erkidegoan bertan. Horrek emendiozko zailtasunak gehitzen dizkie emakume nafarrei haurdunaldia eteteke erabaki zaila hartzen dutenean, betiere lege ezarritako kasuetan.

Kopuru horiek, gainera, urtetik urtera handitzen joan dira Nafarroan, eta agerian uzten dute administrazio publikoak baliabideak jarri behar dituela herritar guztien artean benetako sexu-heziketa bultzatzeko, eskola adinean dauden haurretatik hasita, prebentzio eraginkorragoa lortzeko. Nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisioko

gaixotasunei aurrea hartu eta haiek gutxitzea bideratutako sexu-heziketa bat.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du ugalketa kontziente eta ardurasurako eskubidea berma dezan, eta amatasunaren balio soziala aitortu dezan. Eskubide hori gauzatzeko, behar diren neurriak hartuko dira, kontrazepzioari buruzko informazioa eta praktika emakumeen eta gizonen eskura egon daitezen, eta prestazio normalizatu izan dadin Nafarroako osasun sare publikoan, Estatuaren gainerako lekuetan gertatzen den bezala.

2. Horretarako, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du behar diren aurrekontu-aurreikuspenak egin ditzan egungo emakumeari laguntzeko zentron prestazioak zabaltzeko, benetako beharrei hobeki egokitzen zaien eredu batera zuzenduz: sexuari buruzko informaziorako eta familia orientaziorako zentroak.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du behar diren lege-aldaketak egin ditzan haurdunaldiaren lehenbiziko hamalau asteetan emakumeak libreki abortatzeagatik zigorra desagerraraz dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du Zigor Kodearen a) xedapen indargabetzaile bakarra aldatzeko, soilik arau ditzan emakumearen adostasunik gabe edo emakumearen "adostasun biziarekin" eginiko abortuen zigorrak jaso ditzan, argi eta garbi gera dadin beharrezkoa dela emakumea izatea bere amatasunari buruz libreki erabakitzen duena.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du sexu-heziketa sar dezan derri gorrezko hezkuntzan eta hezkuntzako curriculum proiektuetan sar dezan; halaber, ikastetxeetan beretan gurasoei eta irakasleei prestakuntza eman diezaien. Prestakuntza hori modu koordinatuan zehaztuko dute Osasun Ministerioak eta Emakumearen Institutuak eta autonomia erkidegoak.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du berma dezan foru erkidegoko osasun sistema publikoaren barruan haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruz indarra duen araua betetzen dela. Horri dagokionez, behar diren baliabideak jarriko dira legeak ezarritako kasuetan dauden emakumeei behar bezalako laguntza eman dakien Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun etxeetan. Horretarako, Nafarroako osasun etxe publikoek nahitaez behar diren baliabide teknikoak, giza baliabideak eta baliabide

fakultatiboak izanen dituzte haurdunaldiaren etetak legez praktikatzeko, foru erkidegoan dauden beharren eta eskariaren arabera.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du arau dezan zein inguruabarretan Nafarroako Osasun Zerbitzuaren menpeko osasun arloko langileek, sendagileek, OLTek eta gainerako langile fakultatiboek formulatu ahalko duten haurdunaldiaren borondatezko etenduretan parte ez hartzeko erreserba. Erreserba kasuetarako erregistro bat sortuko da. Aipatu erreserba haurdunaldiaren borondatezko etenduraren berarizko ekintzarako baizik ez du eragina izanen, eta inoiz ere ezin izanen dira kontzientzia-arrazoiak erabili laguntza ukatzeak dakarren arduraz gabetzeko; ezin izanen da, ezta ere, eragozpena aldarrikatu emakumeari laguntzarik ez emateko, haren bizitza edo osasuna arriskuan dagoenean haurdunaldiaren borondatezko etenduraren ondorioz, ez eta eragozpen hori zabaldu emakume orok ebakuntzaren aurretik eta ondoren behar duen zainketa eta laguntzetara.

Halaber, erreserbaren formulazioak berekin ekarri beharko du, hartaz baliatzen diren langileentzat, debekatuta egotea horrelako ebakuntzak egitea era guztietako zentroetan, publikoak nahiz pribatuak izan. Hartara, ulertuko da erreserba hori atzera bota dela hura aurkezten duenak bere borondatez parte hartzen duenean, zentro pribatu nahiz publikoetan, haurdunaldiaren borondatez eteteko ebakuntzetan; hori, gainera, ez da eragozpena izanen administrazioak ekintza horientzat kasuko zehapenak ezarri ahal izateko.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du foru erkidegoko osasun sare publiko osoan talde mediko-sanitarioek zerbitzua eman dezaten, hain zuzen ere ebakuntzak bertatzeko, haurdunaldia beren borondatez eten nahi duten emakume guztiek hori egin ahal izan dezaten; edonola ere, intimitaterako eskubidea gordeko da eta eskubide horren aurkako jarduera guztiak zehatuko dira.

9. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bitartez osasun arloko langileei behar den prestakuntza eman dakien emakumeentzat arinagoak diren haurdunaldiaren borondatezko etendura egiteko teknikei buruz. Halaber, metodo kontrazeptibo modernoagoetan ikerketa egin dadin sustatuko du, eta behar den esperimentazioa egin eta ondoren merkatuan daudenak onartuko ditu emakume guztientzat.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 27an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure Foru Komunitatean haurdunaldiaren borondatezko etenduraren zerbitzua izateko behar diren baliabide egokiak jar ditzan 2007ko abenduaren 31 baino lehen, betiere arestian aipaturiko legean ezarritako kasuetan emakume horiek beren eskubidea baliatu ahal izateko eta behar duten laguntza Nafarroako osasun zerbitzu publikoan jaso ahal izateko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da gure Foru Komunitatean haurdunaldiaren borondatezko etenduraren zerbitzua izateko behar diren baliabide egokiak jar ditzan 2007ko abenduaren 31 baino lehen, betiere arestian aipaturiko legean ezarritako kasuetan emakume horiek beren eskubidea baliatu ahal izateko eta behar duten laguntza Nafarroako osasun zerbitzu publikoan jaso ahal izateko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, talde hori ordezkatzuz eta Legebiltzarreko Erregelamendu indarduneko 192., 193. eta 194. artikuluetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Mozioaren funtsa da behar diren neurri guztiak abian jartzea Nafarroan haurdunaldiaren borondatezko etendurarako zerbitzua eman dadin.

Zioen azalpena:

Uztailaren 5eko 9/1985 Lege Organikoan ezarri zen zein kasutan baimentzen den haurdunaldiaren borondatezko etendura eta lege horren 417.1., 2. eta 3. artikuluetan zehazten dira haurdunaldia borondatez eten ahal izateko bete behar diren baldintzak.

Aipatu legeak indarra hartu zuenetik hogei urte baino gehiago iragan direnean, Nafarroak, osasun zerbitzu publikoan, oraindik ere ez dio erantzunik ematen eskubide horri. Nafarroan ez zaie aborturik egiten legeak baimendutako kasuetan haurdunaldia borondatez eten nahi duten emakumeei, eta horren arrazoia Nafarroako Gobernuaren borondate politiko eza da.

Hori dela eta, aipatu Lege Organikoan ezarritako arrazoiengatik haurdunaldia beren borondatez eten nahi duten emakume nafarrak beste autonomia erkidego batzuetara bidaltzen jarraitzen dute, zehazki, Zaragoza, Madril eta Bilboko zentroetara.

Emakume nafarrek tratu desberdina jasotzen dute egoera berean dauden beste autonomia erkidegoetako emakumeen aldean. Eta tratu desberdina, halaber, osasun laguntza behar eta gure erkidegoan osasun laguntza zuzena jasotzen duten gainerako nafarren aldean ere.

Sozialisten parlamentu-taldearen ustez, ahalik eta ahalegin politiko handiena egin behar da Foru Komunitatean bakarrik gertatzen den legezko eta benetako egoera honi erantzun egokia emateko eta XXI. mendean ulertezina den egoera honekin amaitzeko.

Horrenbestez, bada garaia legean aitortutako emakumeen eskubideak errespetatzeko, bermatzeko eta ez urratzeko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren osoko bilkuran izapidetzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure Foru Komunitatean haurdunaldiaren borondatezko etenduraren zerbitzua izateko behar diren baliabide egokiak jar ditzan 2007ko abenduaren 31 baino lehen, betiere arestian aipaturiko legean ezarritako kasuetan emakume horiek beren eskubidea baliatu ahal izateko eta behar duten laguntza Nafarroan jaso ahal izateko.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren eta Estatuaren arteko Lankidetzaren Batzarrerako dei egin dezan, Konstituzio Auzitegian aurkeztutako konstituziokontrakotasuneko errekurtsioa erretira dadin; errekurtsioa, izan ere, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko 39/2006 Legearen zenbait xedapenen aurkakoa da.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren eta Estatuaren arteko Lankidetzaren Batzarrerako dei egin dezan, Konstituzio Auzitegian aurkeztutako konstituziokontrakotasuneko errekurtsioa erretira dadin; errekurtsioa, izan ere, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko 39/2006 Legearen zenbait xedapenen aurkakoa da."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoa, talde hori ordezkatzeko eta Legebiltzarreko Erregelamendu indarduneko 192., 193. eta 194. artikuluetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Mozioaren funtsa da Nafarroako Gobernuak erretira dezala Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko 39/2006 Legearen aurkako konstituziokontrakotasun errekurtsioa. Legea 2006ko abenduaren 14an onetsi zuen Diputatuen Kongresuak eta 2006-12-15eko 299. BOEn argitatu zen.

Zioen azalpena:

Iragan abenduaren 14an Diputatuen Kongresuak onetsi zuen Autonomia sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen kasu egiteko

39/2006 Legearen herritarren beste eskubide bat ezartzen da. Eskubide hori eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko laguntza behar duten pertsonentzat da.

Lege honen helburua da menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko herritarren eskubide subjektiboaz baliatzeko berdintasuna bermatuko duten oinarrizko baldintzak arautzea, betiere legetan ezarritako terminoetan. Horretarako, autonomiarako eta menpekotasuna dutenei laguntzeko sistema bat ezartzen da, administrazio guztien laguntzarekin eta parte hartzearekin; Estatuko administrazio orokorrak, bestalde, eskubideen gutxieneko komun bat bermatuko du herritar guztientzat Espainiako Estatuko lurralde guztietan.

Autonomiarako eta menpekotasuna dutenei laguntzeko sisteman, Estatuko administrazio orokorrak eta autonomia erkidegoek jardun koordinatu eta kooperatiboan arituko dira, menpekotasun egoeran dauden pertsona guztiengan eragina duten arlo guztietan neurriak ezarri; horretan, kasua bada, toki entitateek ere parte hartuko dute.

Horrenbestez, aipatu legeak, funtsean, menpekotasun egoeran dauden pertsonen zerbitzu eta prestazio batzuk jasotzeko duten eskubidea ezartzen du, haien menpekotasun egoerari duintasunez aurre egitea ahalbidetuko dietenak (etxez etxeko laguntza, eguneko eta gaueko zentroak, egoitzak eta abar), baita haien autonomia pertsonala sustatzea ere, herritar izaera erabat gara dezaten gizartearen barruan (prebentziorako, eta babes eta laguntza pertsonala emateko zerbitzuak).

Menpekotasunari kasu egiteko sisteman ezarritako prestazio katalogoan, badira prestazio ekonomikoak, zerbitzuaren kontratazioari loturiko prestazio ekonomikoak, eta familia inguruneko norbait zaintzeagatik prestazio ekonomikoak.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak, berriki izandako inbestidura eztabaidan, abuztuaren 1, 10 eta 11n, adierazi zuen, besteak beste, Nafarroako herritarrengatik kezkatuta zegoela, bereziki ahule-

nengatik; eta, bestalde, Estatuko administrazio orokorrarekin lankidetzan eta elkar ulertuz jarduteko borondate zabala zuela.

Hori dela eta, elkar ulertzeko borondate hori kontrajarria dago, gure ustez, errekurtsioak mantentzearekin, kasu honetan konstituziokontarakotasuneko errekurtsioa, Espainiako herritarren, eta horien barrenean nafarren, bizi kalitatea hobetzea baizik bilatzen ez duten legeen aurka, eta horixe da aipagai dugun legearen kasua.

Badirudi komenigarriagoa dela parlamentarien eta herritarren artean ahal den adostasun zabalea bilatu eta Nafarroaren eta Estatuaren arteko Lankidetzaren Batzarrerako behar diren saioak premitzea eta deitzea, Foru Hobetzeko 69. artikuluari jarraituz; izan ere, batzar horren baitan, adostasuna eta behar diren akordioak lor litezke lege berria aplikatzeko, betiere administrazio bakoitzak dagoen esparruan.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak aipatu inbestidura saioan adierazi zuen bezala, garai berrietan konponbide berriak aplikatu behar dira.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren osoko bilkuran izapidetzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premitzen du Nafarroaren eta Estatuaren arteko Lankidetzaren Batzarrerako dei egin dezan, arestiko zioen azalpenean aipatu dugun aurkatasuna ebazteko, eta, horrenbestez, Konstituzio Auzitegian aurkeztutako konstituziokontarakotasuneko errekurtsioa erretiratzeko; errekurtsioa, izan ere, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko 39/2006 Legearen zenbait xedapenen aurkakoa da.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premitzen da hiru hileko epean Parlamentuan aurkez dezan zentroetako eta, oro har, zerbitzuetako laguntzako langileen ratioei buruzko diagnosi bat.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuak premitzen da hiru hileko epean Parlamentuan aurkez dezan zentroetako eta, oro har, zerbitzuetako laguntzako langileen ratioei buruzko diagnosi bat".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Sanz jaunak, abuztuaren 8an Parlamentuan egin zuen inbestidura hitzaldian, besteak beste, gizarte zerbitzuei buruz ari zela, adierazi zuen 2008ko martxoaren 20rako gizarte zerbitzuen plan estrategikoa prestatzeko asmoa zuela, eta 2008ko urtarrilaren 1erako gizarte zerbitzuen zorroa; gizarte zerbitzuen kalitate plana egiteko, berriz, ez zuen egunik jarri.

Bada, legebiltzar honek 2006eko abenduan onetsi zuen legeak konpromiso horiek biltzen ditu, plan estrategikoari dagokionez eta zerbitzuen zorroari dagokionez ere, nahiz eta ez duen jaso-

tzen Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen kalitateari buruzko planik.

Uda honetan zehar, egiaztatu ahal izan dugu, komunikabideetan azaldu denarengatik eta parlamentari honek bere kabuz aztertu ahal izan duenaren arabera, ezinegona eta ustekabea egon direla Nafarroako erdialdeko egoitza batzuetako erabiltzaileen senideen artean –enpresa berak kudeatzen dituen egoitzak dira–, tarifen igoerarengatik eta ematen den zerbitzuaren kalitatearengatik.

Kalitate plan bat egiteko data jarri beharra dagoenez eta behar den aurrekontu-diruekin garatu behar denez, IUN-NEBn uste dugu beharrezkoa dela kalitate plan horrek, besteak beste, ondoko alderdiak jasotzea:

0.- Kalitate planak oroitidazki ekonomiko bat eduki beharko du.

1.- Langileen eta tokien arteko erlazioa, egungo ratioak hobetuz.

2.- Zentro soziosanitarioak finantzatzeko formula berriak ezartzea.

3.- Zentro soziosanitarioetako langileen baldintzak hobetzeko konpromisoak ezartzea.

4.- Plan bera kontrolatzeko ikuskapen- eta kalitate-zerbitzua aurreikustea.

Horrenbestez, Nafarroako Ezker Batuak honako erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hileko epean diagnosi bat aurkez diezaion Parlamentuari. Diagnosi horretan zentroetako laguntzako langileen ratioak eta, oro har, zerbitzuak ageriko dira.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuak premiatzen du sei hileko epean Parlamentuari aurkez diezaion, eztabaida dezan, foru erkidegoko gizarte zerbitzuen lehenbiziko kalitate plana.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2007ko abendua baino lehen behar den konponbidea jar dezan Tuterako Erruki Etxeko eguneko zentroa irekita egon dadin eta haren funtzionamendu araubidea normalizatu dadin, eguneko zentroa garai horretan ixten baita.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu du: “Nafarroako Gobernua premiatzen da 2007ko abendua baino lehen behar den konponbidea jar dezan Tuterako Erruki Etxeko eguneko zentroa irekita egon dadin eta haren funtzionamendu araubidea normalizatu dadin, eguneko zentroa garai horretan ixten baita.”

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal-

ko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako gizarte zerbitzuei buruzko Legeak, 2006ko abenduan onetsi zenak, V. kapituluaren gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egitura

planteatzen du, eta lege mailako arau bat eta foru erkidegoko laguntza-maila desberdinen araupetze oso bat eskaintzen ditu. Besteak beste, gizarte zerbitzuek menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntza emateko daukaten betebeharra ezartzen da.

Bada, gaur den egunean, arau horiek ez dira behar bezala betetzen Tuterako Erruki Etxea eguneko zentroan.

Arazo hori behin baino gehiagotan eztabaidatu da parlamentu honetan, eta ez zaio erabiltzaileen eta senideen gustuko konponbiderik eman. Eguneko zentro hori oporregatik ixten da. Erabiltzaileei iradokitzen zaie egoitzan egun osoz ingresatzeko, eguneko zentroak itxita dirauen bitartean.

Hori ez da konponbidea. Formularen bat bilatu beharko litzateke eguneko zentroa urte osoan irekita egon dadin. Eta egoera horri konponbidea eman dakioke behar diren langileak kontratatuz, oporraldien egutegia egin ahal izan dadin.

Horrenbestez, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du 2007ko abendua baino lehen, eguneko zentroa garai horretan ixten baita, behar den konponbidea jar dezan, zentroa irekita egon dadin eta haren funtzionamendu araubidea normalizatu dadin.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 28an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du erabat gaitzesten duela ETA talde terroristak Logroñon egiten saiatu den atentatu hutsegindakoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“ETA talde terroristak berriro jardun du; oraingoan bonba-auto bat jarri du eta lehertarazi nahi zuen Logroñoko kaleetan. Talde terroristaren ekin-tza berri honen aurrean, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du erabat gaitzesten duela ETA talde terroristak Logroñon egiten saiatu den atentatu hutsegindakoa; izan ere, zorionez, gailuaren akats tekniko bat eta poliziaren egintza direla medio, ezbehar larria saihestu da.

2. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazi nahi die Errioxako Autonomia Erkidegoko eta

haren hiriburu Logroñoko herritarrei, terroristen zentzugabekeriaren helburu izan baitira. Halaber, eskertu nahi du Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideen lan arriskutsu eta ausarta, berriro ere eraginkortasuna erakutsi baitute.

3. Nafarroako Parlamentuak berriro adierazten du elkarrizketaren eta alderdi politikoen ekintzaren alde dagoela desadostasun politikoak eta sozialak konpontzeko. Halaber, aldarrikatzen du erakunde demokratikoei eta zuzenbide estatuaren tresnek ezinbesteko eginkizuna dutela bizikidetzaren bake-tsua bermatzeko eta indarkeria erabiltzen dutenen ekintzekin amaitzeko.”

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuko lehendakaria buru duen entitate batek irabazi asmoko entitate pribatu baten, Klinika Unibertsitarioaren, propaganda egiten duen.

FORU PARLAMENTARIANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuko lehendakaria buru duen entitate batek irabazi asmoko entitate pribatu baten, Klinika Unibertsitarioaren, propaganda egiten duen. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria buru duen Nafarroako Kutxa finantza-entitateko bezeroak diren herritarrei iristen zaien propaganda ugarian, ezinbestez harritzen gaituen diptiko bat topatu dugu.

Diptikoaren lehenbiziko atalean hauxe ageri da: “Zure osasuna zaintzeko ordua da” (osasuna letra lodiz idatzia).

Beste orrialdean, hauxe esaten da: “Nafarroako Kutxa osasun aseguru osoa eskaintzen dizugu.”

Eta bukatzen du ondokoa esanez: “Nafarroako klinika pribatu onena: Klinika Unibertsitarioak” eskaintzen dizu “koadro mediko zabala, osasun laguntza Espainiako ospe handiko kliniketan, osasuna 24 orduz linea, bigarren iritzi medikoa, prebentzio programak, barruko protesiak, zenbateko mugarik gabe eta laguntza bidezko ugalketa teknikak, kostu gehigarririk gabe.”

Galdera honako hau da:

– Nafarroako Gobernuko lehendakaria buru duen entitate batek zergatik egiten du irabazi asmoko entitate pribatu baten, Klinika Unibertsitarioaren, propaganda?

– Ez ote da kontraesan bat zeu, Sanz jauna, Nafarroako Gobernuko lehendakaria, buru zaituen entitate batek, klinika pribatu baten propaganda egitea, inbestidurako eztabaidan osasun publikoari laguntza emateko beharraren alde egin zenuenean, eredu pribatu edo mistoen kaltetan?

Iruñean, 2007ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Foru Ogasunak Larraina Klubari eginiko ordainketei eta haien kontzeptuari, klub horren estatutuei eta generoko bazterkeriari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak egindako galdera, Foru Ogasunak Larraina Klubari eginiko ordainketei eta haien kontzeptuari, klub horren estatutuei eta generoko bazterkeriari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko:

1.- Zenbat diru eta zein kontzepturengatik ordaindu dio Foru Ogasunak Iruñeko Larraina Klubari azken 5 urteetan?

2.- Larraina Klubaren estatutuak legez erregistratuta al daude foru administrazioko organo eskudunean? Ba al daki Nafarroako Gobernuak zenbat elkarte, klub, entitate eta era guztietako kolektibo sozialen estatutuetan dagoen ezarrita ezinezkoa dela bazkidea izan beste genero batekoa izateagatik?

3.- Sexuarengatiko bereizketa funtsezko esku-bide gisa ezarrita dagoenez gero, ez al du uste Nafarroako Gobernuak kolektibo honetako edo hauetako estatutuetan jasota dagoen generoaren-gatiko bereizketak Espainiako Konstituzioko lege printzipioren bat urratzen duela?

Iruñean, 2007ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2003an, 2004an, 2005ean eta 2006an gure erkidegoaz kanpora bideratu dituen haurdunaldiaren borondatezko etendura kasuen zenbatekoari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak egindako galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2003an, 2004an, 2005ean eta 2006an gure erkidegoaz kanpora bideratu dituen haurdunaldiaren borondatezko etendura kasuen zenbatekoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko:

1.- Haurdunaldia nahita etetearen zenbat kasu bideratu ditu Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2003., 2004., 2005. eta 2006. urteetan eta 2007. urteko lehen bi hiruhilekoetan gure erkidegoaz kanpoko osasun zentroetara?

2.- Zenbat ordaindu du Foru Ogasunak 2003., 2004., 2005. eta 2006. urteetan eta 2007. urteko lehen bi hiruhilekoetan emakume nafarrek eskutatako haurdunaldien nahita eteteak egiteko?

3.- Zein osasun zentrok igorri dizkiote fakturak Nafarroako Osasun Zerbitzuari haurdunaldien borondatezko eteteengatik azken bost urteetan? Horietako zeinekin du Nafarroako Gobernuak akordio, itun edo kontratu administratiboren bat haurdunaldiak eteteko?

4.- Ba al du Nafarroako Gobernuak zentro medikoren baten eskaria gure erkidegoan haurdunaldiak eteteko legez ezarritako kasuetan?

Iruñean, 2007ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Ablitasko herritar batzuek aurkezturiko kexa dela-eta Arartekoak uztailaren 11n eman zuen 103/2007 Ebazpenaren ondorioz Landa Garapeneko Departamentuak aurrera eraman behar dituen ekintzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARIANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Ablitasko herritar batzuek aurkezturiko kexa dela-eta Arartekoak uztailaren 11n eman zuen 103/2007 Ebazpenaren ondorioz Landa Garapeneko Departamentuak aurrera eraman behar dituen ekintzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Landa Garapeneko Departamentuari:

Zioen azalpena:

Uztailaren 11ko 103/2007 Ebazpenaren bitartez, Arartekoak erantzuna ematen dio Rosa María Serrano Arriazuk eta Ablitasko herritar batzuek aurkeztutako kexari. Erantzunean, azterketa juridiko bat egin eta sei ebazpen ematen ditu, iradokizunak eginez Nafarroako Gobernuari eta Ablitasko Udalari zenbait betebeharrak gogoratuz:

Kontuan hartuz herritar horiek aurkeztutako kexa 2002ko ekainekoa dela, orduan hasi baitzuten Arartekoaren Erakundeak kexa-espeditate bat Ablitasko hirigunearen barruan, etxeetatik hurbil dauden animalien granja batzuk direla eta, hauxe jakin nahi dugu:

Zer egin behar du Landa Garapeneko Departamentuak goian aipaturiko ebazpena dela eta?

Ba al dute gobernuak eta departamentuak aurreikusirik ekintzaren bat arartekoak adierazita koaz gainera?

Iruñean, 2007ko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Tuteran adinekoentzako egoitza bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Tuteran adinekoentzako egoitza bat eraikitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Tuteran adinekoentzako egoitza bat eraikitzen ari dira. Lagunduentzako eta beren kabuz moldatzen direnentzako tokiak izanen ditu. Egoitza pribatua izanen da. Horrekin, hiru izanen dira Tuterak etorkizun hurbilean helduentzat izanen dituen zentro soziosanitarioak.

Galdera hauei erantzutea nahi dut:

Finantzatu al du Nafarroako Gobernuak egoitza berri horren azpiegitura?

Ba al dago dirulaguntzak emateko edo egoitza berrian tokiak ituntzeko konpromisoren bat?

Akordioaren bat izanez gero, niri eskuratzeko eskatzen dut.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, abiadura handiko trenaren ibilbideari buruzko azterlan bat egiteko aukerari buruzkoa, Tuteratik iragan dadin.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, abiadura handiko trenaren ibilbideari buruzko azterlan bat egiteko aukerari buruzkoa, Tuteratik iragan dadin. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Herrilan Departamentuak idatziz erantzuteko:

Prentsaren bidez jakin dut Ingurumen Departamentuak argi berdea eman diola Zaragoza eta Castejón arteko abiadura handiko trenaren tarteari. Erabaki hori azken urratsa da proiektua eta, aurrerago, eraikuntza lanak, lehiaketara atera ahal izateko.

Azterlanak ez du Tuterako saihezbidea jasotzen, trenbideak hirigunetik ateratzeko. Aurreko kontseilariak, Miranda jaunak, adierazi zuen Nafarroako Gobernuak bere burua eskaini zuela azterlan bat finantzatzeko, hain zuzen ere trenaren Tuteran barnako ibilbidea aldatzeko aukerak eza-gutzeko.

Une hauetan, ondoko xehetasunak jakin nahi ditugu:

Aurreikusia al du Herrilan Departamentuak Espainiako Gobernuari eskaintzea trenak Tuteran barna izanen duen ibilbidearen azterlana egiteko?

Herrilan Departamentuak irizpideren bat ba al du horri dagokionez?

Egoera ikusita, departamentuak pentsatzen al du hiru aldeetako bilera baterako deia egitea, Nafarroako Gobernuak, Espainiako Gobernuak eta Tuterako Udaleko ordezkariekin, trafiko arazoei konponbidea emateko formularik onena erabakitzeko?

Ba al daki kontseilariak hiriaren hegoaldean 2.400 etxebizitzetako hiri-garapena aurreikusi dela

eta horrek ibilgailuen joan-etorriak zailduko dituela, eta trenaren ibilbiderako konponbide egokiak arazo horiek arinduko lituzkeela?

Iruñean, 2007ko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Defentsa Ministerioak Ezkabako Gotorlekua laga dezan egin diren urratsei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egindako galdera, Defentsa Ministerioak Ezkabako Gotorlekua laga dezan egin diren urratsei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Defentsa Ministerioak Ezkabako Gotorlekua lagatzeko eginiko urratsei buruzko galdera.

Zein urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak, edo dagokion departamentuak, Ezkabako Gotorlekuaren eta haren inguruan dauden estatuaren titulartasuneko lurren lagapena lortzeko?

Iruñean, 2007ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak 2003. urtetik gaur egun arte irakurzaletasuna sustatzeko erabili duen aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak 2003. urtetik gaur egun arte irakurzaletasuna sustatzeko erabili duen aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzun diezaioten:

– Zenbatekoa da Kultura Departamentuak 2003. urtetik gaur arte irakurzaletasuna sustatzeko erabili duen aurrekontua?

Iruñean, 2007ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiko erabakia, Batzordeetako kideen kopurua ezartzen duena.

2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu eta ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Behin Legebiltzarra eratzeko saioa egin ondoren, hiru parlamentu-talde eta foru parlamentarien bi elkarte daude. Haien kopurua eta osaketa kontuan harturik eta Erregelamenduko 29.4 eta 45.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera, honakoa ERABAKI DUGU:

1. Ezartzea Nafarroako Parlamentuko batzorde arruntetan hamahiru foru parlamentarik hartuko dutela parte.

2. Batzorde arrunt bakoitzeko kideen guztizko zenbatekoa honela banatzea parlamentu-talde eta foru parlamentarien elkartearen artean:

- Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldea: 5 parlamentari
- Nafarroa Bai parlamentu-taldea: 3 parlamentari

- Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldea: 3 parlamentari
- Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarte: parlamentari 1
- Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarte: parlamentari 1

3. Ezartzea parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarteek batzordeetan izanen dituzten ordezkariak izendatzeko epea irailaren 12an, 12:00etan, bukatuko dela.

4. Erabaki hau parlamentu-taldeetako eta foru parlamentarien elkarteetako eledunei helaraztea.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru parlamentari José María Vázquez Royo jauna Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldean sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abuztuaren 27an eginiko bilkuran, erabaki zuen José María Vázquez Royo jauna Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldean sartu izanaren berri baduela adieraztea.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru parlamentari berriak Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abuztuaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean foru parlamentari berri hauek sartu izanaren berri baduela adieraztea:

María del Carmen Ferrer Cajal andrea
José Antonio Rapún León jauna

María Josefa Vidorreta Alfaro andrea
Ramón Casado Oliver jauna
Carmen María González García andrea

Iruñean, 2007ko abuztuaren 27an
Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lehendakaritzaren ebazpena, Ana Concepción Puyo andrea Lehendakari-tzako kabineteburu izendatzen duena.

Lehendakaritza honek, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 3. artikuluan ezarritako-arekin bat, honako ebazpena eman du, behean adierazitako egunean:

Lehena.- Ana Concepción Puyo andrea Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako kabineteburu izendatzea, behin-behineko langile gisa. Izendapenak 2007ko irailaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea legelari nagusiari, Zerbitzu Orokorretako buruari, Kontuhartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari eta interesdunari, eta agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin, behar diren ondorioetarako.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 30ean
Lehendakaria: Elena Torres Miranda



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	